


2007ko ekainaren 28a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



**Isidro Herguedasekin
Bidelagunen kanpainaz**

03

Bidelagun Boluntariotza Elkartek "Etorkizunik?... Zure esku" sentsibilizazio kanpaina paratu du abian Baztanen, Urdazubín eta Zugarramurdi.



**Iparraldeko Jokoen
azken saioa igandean**

37

VII. Iparraldeko Jokoen Torneoa igande honetan bukatuko da. Aipagarriena, ordea, txapelketan ari diren eskualdekoen ordezkaritza zabala da, 11 guztira.



22-10 IRABAZI ZION ABEL BARRIOLARI

04

**Aimar Olaizola
buruz buruko txapeldun**



LESAKAKO ZERBITZUEN E L K A R T E A

ALTZARIAK

Ordoki Altzariak



ARGAZKI DENDAK

Oronoz Argazkigintza
Telletxea Argazki denda



ARROPA DENDAK

Bixkiak Kirol Denda
Deñe Lentzeria
Goiz Argi Moda
Osiña



AUTOESKOLAK

Lesaka Autoeskola



BITXIKERIAK

Kuttuna
Ortzadar
Txirula Loredenda eta Bitxikeriak



BOTIKAK

Olga Botika



ELEKTRIZITATEA

Iñaki Olaizola Elektrizitatea



ESTETIKA

Gemma Igarzabal Estetika
Mariam Mendiberri Estetika



ETXEKO HORNIDURA...

Comercial M^a Jesús



ILEAPAINDEGIAK

Antxordoki Ahizpak Ileapaindegia-Estetika
Maite Igarzabal Ileapaindegia



JANARIDENDAK

Goiz Alde Janaridenda
Ibaiondo Janaridenda
Iñaki Janaridenda
Maite Arraindegia



LIBURUDENDAK

Legarra Liburudenda



MARGOLARIAK

Otxoteko Pinturak



OSTATUAK/KAFETEGIAK...

Atxaspi Hotela
Haizea Kafetegia
Kattu Jatetxea
Txakainlo Aterpea



SOLASTEGIAK

Labei Ciber-Locutorio



ZAPATADENDAK

Txinelka



ZURGINTZA LANAK

Esther Ateak



ongi pasa sanferminak!!!

DATUAK...

- **Bidelagun Boluntariotza Elkartek sentsibilizazio kanpaina berria paratu du abian Baztanen, Urdazubin eta Zugarramurdin.**
- **Kanpainaren izena "Etorkizunik?... Zure esku" da, eta helburua jendeak adinekoen egoeraren inguruan gogoeta egitea da.**
- **Ekainaren 12an abiatu zen kanpaina, eta iraila bitarte, herriz herri karriketan kartelak paratu eta etxeetara txartelak bidaliko dituzte Mario Benedettiren poesia batekin.**



Isidro HERGUEDAS *Bidelagun Boluntariotza Elkarteko koordinatzailea*

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Inguruan adineko aunitz dagoelako, eguneko zentro bat beharko genuke»

Gurutze PIKABEA

Zein da gaur egun gure eskualdeko adinekoen egoera?

Xaharren kopurua hagitx altua da, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi kopurua Nafarroan dagoena baino borts puntu altuaga da. 8.409ko biztanleriaren ia %23k 65 urte baino gehiago ditu (1.885), eta horietatik %16k 85 urtetik goiti. Adinez nagusiak izan arren, batzuk ongi daude, baina egun batetik bertara okerrera egin dezakete. Zer suposatzen du horrek familiarentzat? Ekonomikoki ez ezik, egunerokoan eragiten du, eta batez ere emakumeengan, hauek hartu baitute zaintzeko zama guztia. Etorkinen papera ere aipagarria da. Gero eta gehiago baitira xaharrak zaintzen.

Zer proposatzen du Bidelagunek?

Baliabide eta zerbitzu berriak. Eguneko zentro batez gain, etxez-etxeke zerbitzuak ere ugaritzea nahiko genuke. Eta zaharren egoitzen eredia egungo gizarterako egokia den ala ez ere planteatu beharko litzateke.

Zein behar edo gabezia azpimarratuko zenituzkete?

Hasteko eguneko zentro baten be-

«Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin biztanleriaren %23k 65 urte baino gehiago ditu, horietatik %16k 85 urtetik goiti»

harra. Adinekoek etxean egon nahi dute, familiekin, baina aunitzetan ezinezkoa da. Hala, guk eguneko zentro bat proposatzen dugu, adinekoek nahi duten denbora pasatzeko aukera izan dezaten, eta nahi dutenean etxera itzuli. Orain gutti, menpekotasun legerari buruz hitzaldi batzuk egin genituen Arizkun, Elizondon eta Urdazubin, eta bildutako guztiei eguneko zentro bat zer iruditzen zaien galduta, denei hagitx ongi iruditu zitzaion. Nafarroako Gobernuaren eskaririk ez dagoela diote, baina ez dute planteatu ere egin. Eskatzea bada kontua, eskatuko dugu, bai horixe. Baina lehenbizikoz jendeak behar hori badagoela mentalizatu behar du. Guk ez badugu eskatzen, politikoei eta teknikoei ez dute deus eginen.

Zergatik aukeratu duzue kanpaina bide hori?

Gaia gizarteratu nahi dugulako. Nor-

malean, politikoen propaganda edo bertzelako publizitatea egoten den fardotean zintzilikatu ditugu gure kartelak. Xaharren erronka gizarteratzea da helburua. Erronka, eta ez arazoa. Gure gizartea zahartzen ari da, eta horren aitzinean, gure hurbileko etorkizuna erronkaz beteta dago: Erronka egoitzen eredu; erronka baliabide berriak lortzerako ordu; erronka gure gizartearen zahartzeari buruz eta honen bidetik, udalek zer egin dezaketen gizartea gaztetzeko planteatu. Eta azkenik, erronka gure baitan. Guk ere gure ekarpena egin baitiezaiokegu gure herriari.

Oraingo xaharren egoitzekin zer gertatzen da?

Nik uste dut horien eredia aldatu behar dela. Garai batean, bertzerik ez zutelako joaten ziren adinekoak egoitzetara, gizarteak horrela eskatzen zuelako. Gaur egun, ordea, egoitzak ospitale bihurtu dira. Azken unean, gaizki jartzean sartzen dira egoizetan xaharrak, bertan, bertzeak bertze, etxean jaso ezin dituzten arreta jasoko dutelako. Planteamendu hori aldatu beharko litzateke.



ARGAZKIA: ARGAZKI PRESS

Goizueta edo Leitza. Olaizola II.a edo Barriola. Bi herri eta bi pilotari handi aurrez-aurre, baina txapel bakarra. Azkenean Goizuetara joan da, eta Aimar Olaizolak historia egiten segitzen du. Ekainaren 17an Donostiako Atano III.a pilotalekua jendez gainezka zegoela jantzi zuen Olaizola II.ak buruz buruko txapela. 10-22ko emaitzarekin irabazi zion Abel Barriola leitzarrari. Lehendabiziko sakea Barriolarentzat izan bazen ere, piloteo on baten ondotik Barriolak kontraktxara bidali zuen. Lehen momentutik hartu zuen aitzina goizuetarrak eta 0-7ko hasieraren ondotik, gibeletik ibili zen partida osoan Barriola. Halere, 8-10era hurbildu zitzaion, eta tanto batzutan Aimar dominatzea ere lortu zuen, baina irabazteko aukera aunitzik izan gabe. Honekin, lehen mailako bosgarren txapel haundia eskuratu du Aimarrek, esku pilotan haundienetan haundiena bigarrenenez: buruz buruko bigarren txapela.

ESKU PILOTAREN TXAPELIK HAUNDIENA GOIZUETAN

Aimar Olaizolak buruz buruko bigarren txapela jantzi du

Gurutze PIKABEA

Batek «ametsa betea» eta bertzeak «zapora mingotsa». Horixe buruz buruko finaleko protagonisten hitzak. Goizuetar eta leitzar andanaren aitzinean jokatu zuten partida Aimar Olaizola eta Abel Barriolak Atano III.ean. Biek zuten esku pilotako bigarren txapel preziatua jokoan, baina ordu bat

eta gehiagoko partidaren ondotik —jokoaren iraupena 14:51ekoa izan zen— goizuetarren alde joan zen.

Abelek ez zuen txapelketan aurreko partidetan emandako mailarik erakutsi, eta hasieratik nagusitasunez agertu zen Olaizola II.a. Behin baino gehiagotan irristatu zen Abel eta oinetakoak aldatu behar izan zi-

tuen. 0-7ko partzialaren ondotik, 8-10ekoa jarri zen markagailuan. Momentu horiek izan ziren Barriolaren onenak, Olaizolarentzat, berriz, txarrenak. Baina orduan etorri zen, joakoaren norabidea markatu zuen tanttoa. Barriolaren pilotakadak Aimarren ukolondoa jo zuen. Olaizolaren aldeko bertze tanttoa izan zen, baita on-

Aimar OLAIZOLA



ARGAZKIA: LUIS ANGEL SAMANIEGO

«Txapel hau pilotari guztien ametsa izaten da, eta irabaztean zaila da sentitzen dena adieraztea. Oso zentratua atera naiz kantxara, indartsu eta txisparekin eta horixe izan da gakoa. Markagailuan alde atera dut eta jokatzeari errazagoa izan da horrela. Nik uste dut partida ona egin dudala, baina baliteke oraindik batenbat ez konbentzitu izana. Gonzalezen aurkako partidarekin ere gustora gelditu nintzen, baina badirudi ez dela nahikoa. Eskuinarekin gozatu egin dut, eta Abeli min egin. Lau urte daramatzat kontu berak aditzen, nire eskuina ez dagoela ongi, baina eskuineko besoa gaizki edukita, ezin da txapelik irabazi».

«Zentratua, indartsu eta txisparekin atera naiz eta hori izan da gakoa»

Abel BARRIOLA



ARGAZKIA: LUIS ANGEL SAMANIEGO

«Txapelduna edo azpitxapelduna izatea diferentea da. Txapelketan egindakoarekin gustora nago, baina finalak sentsazio mingotsa utzi dit. Baliteke txapelketako nire partidurik txarrena izatea. 9-13ko markagailuan hor eduki dut, ni baino nekatuagoa zegoen eta argi nuen nire arma behin eta berri pilotari ematea zela. Baina tantoa bukatzeko aukera edukita, opari batzuk egin dizkiot eta Aimarek ihes egin du markagailuan. Ez dut ongi sakatu, abiadura eman diot pilotari, baina gurutzatu gabe. Hortik aurrera berak hobeki jokatu du. Merezitakoa du txapela. Txapelketa oso luze joan zait eta oso nekatua bukatu dut».

«Txapelketa ona egin ondotik, sentsazio mingotsa utzi dit finalak»

dotik etorri zirenak ere. Barriola hobekien ari zen momentuan Aimarek sakea kendu zion, eta hortik aitzinera, ez zuen Aimar mendean hartzerik lortu. Aukera askorik utzi gabe 22ra joan zen Olaizola II.a. Azkenean 22 eta 10, Goizueta txapela.

Buruz buruko laugarren finala zuen Olaizola II.ak, eta azken honen dagoeneko bi badiu etxean. Duela bi urte jantzi zuen esku pilotako txapel haundia lehen aldiz, Martinez de Irujori 22 eta 18 irabazi ostean. Joan den urtean ere finalera ailegatu zen, baina, ezin izan zuen Irujo garaitu, eta 22 eta 17 galdu zuen. Finalaren atarian, eskuineko besoaren inguruko zurrumurruak egon arren, sasoiko dagoela beretsi du goizuetarrak.

EGUN TXARRA BARRIOLAK

Buruz buruko bigarren finala zuen Abel Barriola leitzarrak ere, baina ez zuen txapelketan ordura bitarteko mailarik eman. Koadroaren azpi-azpiko mailatik ekin zion leitzarrak txapelketari, eta bortz partida gogor jokatu zituen finalera ailegatu aitzinetik. Galartza V.a, Xala, Peñagarikano, Martinez de Irujo eta Eugi garaitu zituen finalera ailegatzeko, baina ekainaren 17an ezin izan zuen 2002an lortutako buruz buruko txapela berri Leitzara eman.

ASPALDIKO LAGUNAK, AURREZ AURRE

ARGAZKIA: ANTIGUAKO PILOTAZALEOK

Aimar Olaizolak eta Abel Barriolak aspalditik ezagutzen dute elkar. Bat goizuetarra, bestea leitzarra, batzuetan elkarrekin, besteetan elkarren aurka, baina badute elkarren jokoaren berri. Profesionaletara ailegatu aitzinetik, afizionatuetan ere elkarrekin aritzen ziren, eta horren lekuko argazki hau. 15 eta 16 urte zituzten orduan. 1995ean Antiguako Pilota Txapelketan elkarrekin aritu ziren, baita txapeldun atera ere. Debuta ere hagitz gazterik egin zuten: Barriolak Tolosako inauterietan jokatu zuen profesionaletako lehen partida, 1998ko otsailaren 22an. 19 urte baino ez zituen orduan, eta hori, eskuko arazoak tarteko, urte bat gibeleratu behar izan ziotela. Buruz buru Eneko Galartzaren aurka aritu zen, baita irabazi ere (22-12). Bi hilabete beranduago, apirilaren 12an, Aimarren txanda ailegatu zen, Lekunberrin. Goizuetakoa Alberdi III.a lagun zuela, Soroa III.a eta Hirigoienaren aurka aritu zen. Olai-zolak galdu zuen (22-18). Bi pilotari haundiren hasiera izan zen.



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Guardia Zibilak jipoitua

Duela egun batzuk, ekainak 5, arratsaldeko hirurak aldera, Baztan bailarara nindoan nire autoan, eta Etxalarrera ailegatzen ari nitzela, Guardia Zibilak kontrol batean geldiarazi ninduen. Agente bat hurbildu zitzaidan leihatilatik, eta gidatzeko karneta eta ibilgailuaren dokumentazioa eskatu zidan. Jarraian, autotik jaisteko eta maleteroa irekitzeko agindu zidan. Autoaren aitzineko aldera abiatzeko esan zidaten, eta sakelak husteko eskatu zidaten. Gero, katxeatu ninduten. Autoa mihatu zuten, zentímetro bat ere begiratu gabe ez zuten utzi. Bizkarzorroa hustu zuten, agenda eta kartera ateratu zituzten. Agenda irakurri zuten, orriz-orri, baimena eskatu gabe, noski; nire bankuaren kartillaren laburpenak ere bai. Kartera hustu zuten; eta nire EHNA, hala nola ARALAR alderdiaren hauteskunde propaganda-orri bat. Alderdi abertzale honen zerrendetan hauteskundeetara joan naiz Getarian, eta propaganda-orrian nire argazkia agertzen zen. Delitu larriak biak. Abertzalea izatea. Euskalduna baino ez sentitzea. Eta alderdi abertzale batekin hauteskundeetan aurkezte. Hain agente jator hau, Euskal Nortasun Agiria hartuz, niri zu-

zendu zitzaidan, iseka eta mespretxu arteko keinuarekin, eta ea bideo-klubeko karneta zen galdetu zidan. Kasurik ez nion egin, merezi ez zuelako. Jarraian ea ni espainola ez nintzen galdetu zidan. Nire erantzuna ezetz izan zen; Euskalduna naizela. Eta gero ea nik ez ditudan nire zergak Espainian ordaintzen. Eta berriro ezetz. Gipuzkoan ordaintzen ditudala. Hau agentearentzat gehiegi izan bide zen, eta bere erantzuna honako hau izan zen: «Le voya sancionar». Bertzerik gabe. Argi zeukan isuna paratu behar zidala. Inposatzen diguten pentsamendu espainolistarekin bat ez etortzeagatik nire peajea ordaindu behar nuela. Larrialdiko triangeluak, txaleko islatzaileak eta ordeko bonbillak ateratzeko erran zidan. Suposatzen dut norbait arrazoirik gabe isundu nahi denean, hiru gauza hauekin erraza dela. Kontua da hirurak ondo zeudela. Baina agenteak isundu behar ninduen, eta erabaki zuen nire bonbillek ez zutela balio. Ez zirela bere gustukoak. Ez zekiela nire autoarenak ziren ala ez. Eta isuna paratzera zihoala. Ni zur eta lur geratu nintzen. Zin egin nion zuzenak zirela. Nahi izanez gero banan-banan probatuko genituela. Ez egiteko arrenka eskatu nion. Esan nion ea nola eginen zuen ilegaltasun hurra. Dena ongi zegoela.

Bere erantzuna: «¿Algun problema? Pues que sepa que le voy a sancionar también por estar en la calzada y no llevar el chaleco reflectante puesto». Nola izan daiteke hain zitala? Momentu horretan, eskue tan neuzkan triangelu, bonbillak eta txalekoak botan nituen, eta bidegabekeriaren amorruagatik, bere ama aipatu nion... Supituki, agente hau eta bertze bi korrika abiatu ziren niregana, eta bik autoaren kontra eusten zidaten eta pistolekin apuntatzen zidaten bitartean, hirugarrenak buruan jo ninduen nahi izan zuen guztia. Gero bultzakadaz autoan sartu ninduten, eta ez mugitzeko, ezta hitz bat esan ere. Eta esker-rrak emateko. Kuartelillora eramane beharko nindutela, eta horrela izan balitz, prestatzeko... Eraso fisikoa, mehatxuak, gezurrezko sakaketa... Gizon hauek al dira DENOK defenditu behar gaituztenak, gure ideia politikoei begiratu gabe? Edo Estatuaren dobermanak dira, sua piztera datozenak?

Ordu erdi baino gehiago autotik mugitu gabe pasa ondoren gauza horrela bukatu zen: bi isun horiekin, eta bertze batekin, argi keinukari bat hautsia eramateagatik. Gero, Foruzainei galdetuta, isuntzeko arrazoa ez dela erran zidaten. Oro har, 450 euro eta karnetaren hiru puntu, deus ez egitea-

gatik. Soilki espainola ez sentitzeagatik. Hori bai, gero, edukazio handiarekin, eta, nire ustez, sinpleki gehiago izorratzeko, erran zidaten isunekin ados ez banengoan, helegitea paratzea nuela, Legeak babesten nauela, bertze espainiar guztiak bezala. Eta isilik egon behar izatea...

Eta kolpeak, noski. Baina gehien mintzen duten kolpeak barnean ditudan dira. Inpotenziaren sentsazioa. Amorrua.

Jarraian anbulatorioa abiatu nintzen, eta han lesioen partea egin zidaten, eta Foruzaingoaren egoitzara, salaketa paratzera. Orain bajaran nago, ia lepoa mugitu ezinik, eta buruko mina jasanezina. Badakit alferrik dela salatzea. Gerta daitekeena hurrengoan bi kolpe jaso ordeztu lau jasotzea da. Baina uste dut nire beharra dela. Eta konstatzea, jendeak zer gertatzen den jakin dezan. Ni guardia zibilak erasotua PSOE edo PPko zinegotzi bat iraindua izan balitz, gaur egunkari guztietan egongo litzateke, eta baita Parlamentuan gaitzetsia. Baina hau, nori inporta zaio? Zorixarrez, biktimaarena egiten dutenak askotan borrarroak dira, eta portaera honekin lortzen duten gauza bakarra, biolentoei arrazoa ematea da.

Guzman Paskual Belasko

• IRAKURLEAK MINTZO •

Elkartasunaren

'azterketei'

erantzuna

Bere boto-emalei eskerrak ematearekin batera, hausnarketa «kuriosoak» egiten ditu Elkartasunak **TTIPI-TTAPAN** argitaratutako gutunean. Hauteskundeak bukatuta, oso egun gutxitara idatzi baldin bada ere, emailtei eta herritarrei buruzko azterketa soziologiko sakona egiteko denbora izan dutela dirudi Elkartasunakoek. Zertan oinarritu dira, bestela, «herri an bizi diren gehiengo baten babesa dugulakoan gaude» idazteko? Hordiozuen bezala, kanpoan bizi direnen botoa EAE-ANVk jaso badu, Elkartasunako zerrendaburuak ere guri botatu izanen digu, Iruñean bizi baita aspaldiko urtetan.

Azterketen emailtekin jarraituz, zuen boto-emaleek gurei «*mezu garbi bat*» bidaltzen dietela diozue: «*lan egiteko forma ezberdinak badaudela, ingurukoa errespetatuz, ezin ikusia baztertuz, ezberdin pentsatzen duena*

ere goizuetarra dela onartuz». Honekin zer esan nahi ote dute ba zuen boto-emaleek, HBk eta EHK udaletxean lan egin duten 24 urteetan ezker abertzalekoentzat bakarrik gobernatu dutela? Ezker abertzalekoentzat egin al dira babes ofizialeko etxebizitzak, zeharbidea, gasa, kontsulta, base-riretako pistak, ehunka hektarea birmoldatu, udal-letxe berria...? Barkatu ausardia, baina ez gatoz bat, egin duzuen analisiarekin. Gure ustez zuei iruditzen zaizuen baina askoz gehiago dakite maiatzaren 27an boto eman zizutenek. Zuek ikusi nahi zaituztete udal-letxean, baina badakite ederki ezker abertzalekoak egon direnean, herri guztiarentzat egin dutela lana, eta ondorengo lau urteetan ere horrelaxe eginen dugula.

«*Akuiluarena*» ere esamolde hau nondik heldu den jakinda, erantzun erraza duenez ez gara horretan gehiago luzatuko. Bukatzeko bi gauza. Bat, gu lanerako, elkarlanerako gaudela, Herri Etxean dagoeneko alkate den MielJoxe Lekuonaren eta

bere taldekoen ibilbide luzeak beti erakutsi duen bezala. Eta bestea, zuen gutunari erantzun baldin badiogu, boto-emaleei zor diogun errespetu-gatik izan dela. Orain dauzkagun edo lau urteetan izan ditzazkegun desadostasunak mahai baten bueltan konpontzearen aldekoak gara gu, eta ez ez komunikabideetan.

Goizuetako EAE-ANV

Ausartu zaretenei

Berako Aralarretik eskerrak eman nahi dizkiegu guri botoa ematera ausartu diren lagunei. Emailtza horiek bi zinegotzi lortu ditugu Udalean lan egiteko prest, herriaren alde lanean aritzeko prest. Arduraz jokatu dugu Udalean, eta hurrengo lau urteetan ere hala jokatu dugu. Gainerako taldeei ere era berean jokatzeko eskatzen diegu. Gure taldearen ateak zabalik egon diren herritar guztientzat zein herri mugimenduarentzat.

Berako Aralarrek argitu nahi du Nafarroa Bai osatzen dugun taldeok hauteskundeetan aitzinean ez dugula elkarrekin joateko inolako saiakerarik egin, Beran ez genuelako horretarako beharrik ikusten.

Hala nola, agertu nahi dugu guztiz zilegia dela bertze alderdiekin elkartzea eta gehiengo zabalak bultzatzea eta lortzea. Edonola ere, lau urte hauetan gobernuan egindako eta izandako esperientzia eta emailtzak aztertu ondotik, inori babesik ez ematea erabaki dugu, eta gure aukera gobernuan ez sartzea izan da. Udal talde guztien arteko elkarlanaren alde egiten dugu.

Berako Aralar

Eskerrak Abel

Barriolari

Guztiok pozik joaten gara frontoira gure pilotariak animatzera eta tan-tonak txalo zaparradaz

ospatzera. Oraingoan ere, gure pilotari Abel Barriolak puntu-puntako partida egin ez zuen arren, bere jarraitzaileak bertan egon ginen azkenerarte animatzen, txalotzen... Sentimenduzko negar malkoak ixuri genituen eta bihotzean hutsune handi batekin irten ginen Atano III.a pilotalekutik. Baina hala ere, Abelek beste inork baino hobeto erakutsi du txapela beretzat izan behar zuela eta pilotari bikaina izateaz gain, pertsona jatorra eta bihotz onekoa dela. Aurkaria parean jarri, tantoak lapurtuz inongo lotsarik gabe; partida amaitu eta inolako edukaziorik erakutsi gabe eskurik eman ez, eta hala ere, Abelek barkamena eskatu eta horrelako pertsona «*faltzu*» bati buruz ongi hitz egiten jarraitzen du. Olaizolak txapela lortu du, baina, zuk Abel, herritarren txapela, inguruko maitasuna eta guztion bihotza eta errespetua lortu duzu. Aupa Abel eta jarraitu lanean, txapela zurea da eta!!!

Maitane Gereño
Areso

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 • atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ZJ
Zalain
jaketxea - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auxoa x/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ESKUALDEA

Eskualdeko hainbat lagunek bat egin du Milakabilaka ekimenarekin

Baztan-Bidasoaldeko aurkezpen ekitaldia ekainaren 9an egin zen Beran

ttipi-ttapa

«Euskal Herriari, herriarrei eta hitzari errespetua» eskatuz hainbat lagun bildu ziren Beran egindako Milakabilaka ekimenaren aurkezpenean. Alderdien interpretazioez haratago, ekimena konponbidea bulkatzeko sortu zen, eta herriz herri dabil defendatzen dituen oinarriak zabaltzen, horien artean, «bakea lortzeko elkarriketa eskara» eginez. Ekainaren 9an Baztan-Bidasoaren txanda izan zen, eta inguruko jende andana hurbildu zen Berara.

Ekitaldian aurpegi ezagunek hartu zuten hitza. Aurkezpena Fermin Gartxitorena Xorroxingo kazetariak egin zuen, eta manifestuaren irakurketa Jon Eli-



UTZITAKO ARGAZKIA

Milakabilaka ekimenak Beran egindako aurkezpen ekitaldia.

zetxe Gartzaingo bertsolariak. Gisa berean, dantzariak, bertsolariak, Jo ala Jo kultur taldearen kirikoketa saioa, Donato Larretxearen aizukora erakustaldia... Eskualdeko hainbat erre-

ferente han izan ziren. Akaberran, bildutakoek argazkia atera zuten.

Bertzalde, egun berean, Milakabilakaren kamioia ere Beran izan zen. Kamioia Euskal Herri osoa zeharkatzen ari

da, «errespetua» lema-ekin eta ekimenari atxikimendua erakutsi nahi dioten herritarrei argazkiak eginez. Inguruko jendeak ere horrekin bat egin nahi izan zuen eta argazkiak atera zituen.

FLASH

Agenda 21eko bilera ortziralean

Agenda 21en lehen urratsa eman ondotik, Bortzirietako Agenda 21eko proiektuak erabakitzeke bilera egingen da ortziral honetan, ekainak 29, 19:00etan Alkaiagan Cedernak duen zentroan.

Lanpostuen eskaintza publikoa egin du Bortzirietako Mankomunitateak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatek 2007ra begira hainbat lanposturen deialdia egin du. Lanpostu bat lanaldi erdiz administrazio lanetan aritzeko izanen da, eta bertze lanaldi erdia hiri-hondakin solidoen kudeaketa egiteko. Bigarren lanpostua, berriz, lanaldi erdiz, Autonomia Pertsonala eta menpekotasuna duten pertsonen arreta eskaintzeko programan lan egiteko izanen da. Bertze bi deialdi ere zabaltzen dituzte, familietan laguntzeko. Azken bi hauek, lanaldi osoak dira.



BERA

EAE-ANVko Josu Iratzoki da alkate berria

Bere alderdiko lau zinegotzien
botoekin izendatu zuten

Amaia eta Ainhoa

Maiatzaren 27ko hauteskundeetan ANV izan zen alderidirik bozkatuena, eta 11 zinegotzietatik 4 eskuratu zituen. Hala, ekainaren 16an udalbatza osatzeko, Josu Iratzokik bere alderdiko lau botoak lortu zituen, Helena Santestebanek bi (hirugarren hautagaia ez zen Herriko Etxera agertu), Aralarrek berte bi eta EAJk Na-Bairi bozkatu zionez, boto horiek baliogabeak izan ziren. Momentuz, honako hauek dira kargua hartu duten hamar zinegotziak: EAEko Josu Iratzoki, Amaia Telletxea, Ramon Elgorriaga eta Aintzane Artola, EAKo Helena Santesteban eta Alfredo Goienetxe, Aralarreko Marisol Taberna eta Jon Abril eta EAJko Santiago Altzuguren eta Isidora Agirre. Hamekagarren zinegotziak, EAKo Josefa Otiñanok, ez du oraingoz kargua hartu, ez baitzen larunbateko ekitaldira agertu, eta lerro hauek idazti direnean, Udal-idaz-

kariak ezin digu ziurtatu noiz hartuko duen kargua.

Berako alkate berriak Josu Goia alkate ohia- ren (1999-2003) esku- tik hartu zuen aginta- riaren makila, eta egin zituen lehen hitzetan, berte alderdiekin lan egiteko prest dagoela eta herritarren parte- hartzea bultzatuko due- la adierazi zuen.

Udan ere, kirol eskaintza zabala

Toki Ona kiroldegiko arduradunek ikastaro ugari prestatu dituzte udarako. Igerilekuan, abonatuentzat igerike- ta ikastaroak izanen di- ra uztailaren 12tik abuz- tuaren 2ra (flotatzen ikastea, igeri egiten ikas- tea, hobekuntza, hel- duak). Honetaz gain, uz- tailaren 9tik abuztuaren 2ra, 16 urtetik goitiko- entzat *aquaerobika*, uz- tailaren 16tik 26ra 8 ur- tetik goitikoentzat urjo- koak eta uztailaren 6tik abuztuaren 1era tenis ikastaroak izanen dira (0-16 urte; 17tik goiti- koentzat). Kiroldegian,



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

Josu Iratzoki kargu hartu zuen egunean.

muskulazio gela zaba- lik izanen da eta abo- natuek muskulazioa egin dezakete. Uztaila- ren 9tik abuztuaren 2ra *Ciclo Indoor*, uztailaren 2tik 27ra *aerobic*, uztai- laren 9tik abuztuaren 2ra *pilates* eta uztaila- ren 2tik 27ra *salsa*, *cha cha cha* eta *regueton* ikastaroak izanen dira. Informazio gehiagora- ko 012ra edo kiroldegi- ra deitu behar da. Ize- na emateko epea la- runbat honetan buka- tzen da eta interesatuek kiroldegira deitu behar- ko dute (948 630215) 11:00etatik 13:00etara edo 17:30etik 19:30era.

Patxi Vilak Lamprerekin segituko du

Patxi Vilak Lampre- Fondital taldearen ko- loreak defendituko ditu berte bi urtez. CSC, Euskaltel-Euskadi eta berte taldeetatik es- kaintzak egin dizkiote, baina «bihotzarekin pentsatu beharrean bu-

ruarekin aritzea hobe denez», Lamprerena hobe iruditu eta bertan segitzea erabaki du. Vi- lak Italiako Giroan par- te hartu zuen eta orain gutti bukatu den Euskal Bizikletan ere paper ona egin du; sailkapen na- gusian seigarren geldi- tu da.

Partehartze handia Kirola- ren Egunean

Ekitaldi andana an- tolatuta zegoen ekaina- ren 16ko Kirolaren Egu- nerako, eta guztietan partehartze handia izan zen. Goizean herri kro- sa egin zen eta 262 la- gun atera ziren. Txikie- nen partehartzea izu- garria izan zen, 73 la- gunek izena eman zu- ten eta bi taldetan ba- natu behar izan zituz- ten. Seniorretan Fer- nando Etxegarai nahi- ko erraz nagusitu zen. Gainerako sailkapenak honela gelditu ziren: Tti- kienetan, lehendabizi- ko taldean Julia Artieda

nagusitu zen nesken ar- tean eta Aimar Pikabea mutiletan. Bigarren tal- dean Kattalin Berasain eta Iker Telletxea nugu- situ ziren. Aurrebenja- minetan Yago Cantero eta Olatz Mitxelena, benjaminetan Iker Itu- rria eta Irati Garaia, ki- muetan Ane Eltzaurdia eta Beñat Mitxelena, haurretan Asier Gartzia, kadeteetan Asier An- duetza eta Itxaso Erran- donea, gazteetan An- doni Riopedre eta Naia- ra Trigueros. Beterano- etan Bautista Telletxea nagusitu zen. Aerobic, Ciclo Indoor, Kenpo Kai erakustaldia, eskuba- loia eta zesta-punta ere ez ziren faltatu. Tamba- rria Moto Clubak anto- latuta Ibardinen I. Zig Zag Motor-trial Txapel- keta ere egin zen. 60 bat lagunek parte hartu zuten, eskualdetik Luis Mari Osés eta Aitor Ira- tzokik. Iratzoki junior mailan hirugarren gel- ditu zen, eta Osés za- leen mailan laugarren.

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Egineroko menua eta
antzerkian menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

earno
gozategia dindiegi
or du etxegara 25 bago
34700 berri (navarra)
1948 63 08 99
www.earno.net

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Alhaisa, 3 - Tel: 948 630 083

LESAKA

Koldo Erkizia izanen da alkate datozen lau urteetan

EAKo zerrendaburuak Onineko zinegotzien botuak hartu zituen, ustekabeen, pleno istilutsuan

Aitor AROTZENA

Tentsio handia eta ustegabeko handiagoa izan zen ekainaren 16ko zinegotzi eta alkatearen kargu hartzean. Hauteskundeetan boto guttien bildu zuen alderdia EA izan arren, EAKo zerrendaburua, Koldo Erkizia, aukeratu zuten alkate. Hauteskundeak egin eta egun batzuetara EAK bere alde bozkatuko zuela jakinarazi zuen. Alderdi bozkatuena izanik, EAJ-PNVk gauza bera egin zuen. Onin Udal Taldeak, aldiz, ez zuen alde zuretik bere bozken nondik-norakoa zehaztua. Berriki, gainerako alderdiekin hizketan ari zirela adierazia zuen, bai-

ta ANVrekin ere. Balio gabetutako botoei zegokion zinegotzia uzteko prest zirela ere erran zuten, baina hori nola egin hausnartu behar zutela. Azken asteak negoziatzeko pasatu ondotik, bozkatzeko orduan ezustekoa eman zuen Oninek EAKo Erkiziaren aldeko botua eman, eta ondorioz, Juan Fermin Mitxelena EAJko zerrendaburua alkatetzatik baztertuz. Kargu-hartze ekitaldira 40 bat herritar hurbildu ziren, gehienak ANVko botuen balio gabetzeen aurka protesta egiteko, eta botu horiei legozkieken zinegotzi-postuak bertzeek hartzearen aurka manifestatzeko.



ARGAZKIA: JESUS MARI SANJURJO

Maia eta Sanjurjo txapelkun

Mikel Maia eta Josu Sanjurjok infantil A mailako txapela irabazi dute Josetxo Ezkurra Memorialean. Finalean 18-9 irabazi zieten Burlatako Iribarren eta Arrizabalagari. Bertzalde, xokoko txapelketako finala ekainaren 30ean, 12:00etan jokatu da. 12 pilotarik parte hartu dute txapelketan.



ARGAZKIA: PAKITO PORTU

Unai Etxepare oroitarria Anayeten

Unai Etxepare gaztea Pirinioetako Anayet mendian hil zen urte hasieran. Bere senide eta lagunek inguru horretara bidaia egin zuten ekainaren 16an Unai gogoratzera. Lore eskaintza egin eta oroitarria jarri zuten.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Diamante eta Urrezko Ezteiak

San Fermin elkarteak urteko bazkaria egin zuen, eta Nafarroako Kutxaren laguntzarekin Diamante edo Urrezko Ezteiak bete dituzten bikoteak omenatu ditu: Jose Mari Maia eta Teresa Altzugarai, Federico Mitxelena eta Luzia Telletxea, Cristobal Zamorano eta Maria Teresa Aguilar, Pedro Lanz eta Amparo Otxoteko, eta Luis Ordoki eta Tomasa Otxoteko.



ARGAZKIA: LEGARRA

Beti Gazteko jokalariei ohien bilkuran Goofi omendua

Beti Gazteko futbolari ohiek bilkura egin zuten ekainaren 9an. Goizeko partidaren ondotik, 60 lagun bildu ziren Kasinoko bazkarira. Bazkalondan omenaldia eskaini zitzaion Jose Ignacio Goia "Goofi"ri.

ETXALAR

Patxiku Irisarrik segituko du alkate datozen lau urteotan

Lau zinegotzi izanen ditu Herri Taldeak eta hiru Eusko Alkartasunak

Joseba eta Nerea

Aldaketarik ez. Aitzineko legealdian bezala segituko du Udalak datozen lau urteotan. Herri Taldeak lau zinegotzi izanen ditu eta Eusko Alkartasunak hiru. Arazorik gabe osatu zen Udala ekainaren 21ean eta hauek izanen dira legealdi honetako alkate-zinegotziak: Patxiku Irisarri, Xabier Iturria, Nerea Mitxelorena, Irati Lujua, Arantxa Zubietta, Agustin Arribillaga eta Jose Antonio Tellexea.



ARGAZKIA: ONINTZE

Landagain eskolako ikasleak ederki aski pasatu zuten Haurren Eguna.

Trikitixa Jaialdia

Joan den igandean trikitixa doinuek hartu zuten herria. Lesaka Trikitixa Taldeak antolatutarik, Etxalarko II. Trikitixa Jaialdia egin zen plazan. Gisa guztietako doinu eta abestiak eskaini zituzten inguruko hainbat herritako etorritako trikitilari gazteek. Gureak ere ez ziren faltatu. Bertzeak bertze, Irune eta Itsaso Elizagoien, Miren Lasaga, Alaitz

Danboriena edota Iza-ro Iribarren trikitilari gazteak. Herritar andana hurbildu zen jaialdia ikustera.

Haurren Eguna

Eskolako haurrek egun handia izan zuten ekainaren 17an. Urtero bezala, Haurren Eguna egin zuten hainbat ekitaldi eta emankizunekin.

ESKULAN ERAKUSKETA ETA IPUIN TOPAKETA

Goizean goizetik eskulan erakusketa paratu zuten frontoian. Hainbat herritar harat-honatean ibili ziren haurrek egindako marrazki, panpin, koadro edota eskaiozko irudiak ikusten. Eskolan idatzitako ipuinak paneletan paratu zituzten jendeak irakurtzeko eta 12:00etan haur batzuk jendaurrean irakurri zituzten euren kontakizunak. Aspaldiko ohitura da Ipuin

Topaketa, eta Joxe Mari Remiro zuzendaria-
ren erranetan «*ikasleak literaturara hurbiltzeko egitasmoa da, ongi pasatzen dute istorioak asmatzen eta herritarren aitzinean irakurtzen*». Lehen ipuin lehiaketa egiten zen, baina azken urteetan ez dituzte haurren ipuinak saritzen, «*konpetibitatea hausteko eta guztiek merezimendu bera dutela ikusteko*» adie-

razi digu Remirok. Ikasle guztiek ipuin bat jaso zuten orogarri moduan irakasleen eskutik.

HERRI BAZKARIA ETA EUSKARAOKEA

Frontoian bazkaldu zuten Landagaineko ikasleek hainbat lagun eta familiakoekin batera, eta arratsaldean kantari aritu ziren Euskara-okea ikuskizunarekin. Giro eta umore ederrean pasatu zuten herriko tikienean arratsaldea.

Segurtasun barandak

Udalak hainbat baranda jarri ditu herrian, pareta eta erreka bazterretan jendea ez erortzeko. Antsolokuetan Arantxipi ondoan eta presan; Goiko Landa auzoan Buxungo Errekan; Iñarretan Artañoko errekan, Errotagaraitik goiti; eta Beheko Landan Iturri Berrian, Idoia eta Ttiki erreketan. Herritarren segurtasuna ziurtatu nahi da baranda hauekin.

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
Kontakia ordutegia: Petatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordos eskatu

ONDORIGETATIK INDARTZERO:
Diabetes - Azina - Zizareak - Larra azaleko alergia - Buruko mina - Oinazko izaia - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERAKUNTZA:
Miopia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi larrak kataraktak

GIHARRAK ARAZOAK:
Bixkortzea - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostaldea

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardinga Lepoa • 948 631 209

USOA
nekazari kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Monterola
Bikotilla, Baitaño, Baitaño

Barrioak - gure - Astelekuak

925 60602
Baitaño, 4. beheko - VILA

ARANTZA

Heldu den ikasturteari begira ludotekaren etorkizuna zalantzan

Guttienez lau haur behar dira eta oraingoz, bizpahiruk eman dute izena

Nerea ALTZURI

Dagoeneko sei hila-bete pasatu dira Peletikiko ludotekak ateak ireki zituenetik. Julen Zelaieta beratarra begirale zutela, bi eta hiru urteko zortzi haur ludotekari ibili dira astegunez, 9:00etatik 13:00ak bitarte.

Lehenbiziko esperientzia hagitz baikorra izan da, baina momentuz haurtzaindegia etorkizuna ez dago segurtatua, heldu den urtean zenbat haur izanen diren ez baitakite. Hemendik bi urtetara ludoteka zabalik edukitzeko haur nahikoa izanen da; hurrengo ikasturtera begira, ordea, guttienez lau haur izan behar dira, eta oraingoz, bizpahiruk bertzerik ez dute eman izena.

Praga, Viena eta Budapestera oporretan

Berriz ere oporraldiaren tenorea ailegatu da. Herritar talde batek urte mordoak badu oporraldi gidatueta parte hartzen duela. Aurtengo Praga, Viena eta Budapest hiriburu haundiak ezagutzeko aukera izanen dute. Asteartean, ekainaren 26an, Madrilera autobusez joan ziren. Han, Barajasen, goizez hegazkina hartu zuten Pragarantz. Pragan ortzirala arte egon dira, hango zenbait eraikin, bainuetxe, enparantza, leku... bisitatu. Pragatik Austriako bidea ortziraletan hartuko dute, eta Viena eta inguruko eraikinak bisitatu dituzte igandera bitarte: opera, men-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Aurtengo ikasturtean zortzi haur egon dira haurtzaindegian. Argazkian Leire, Imanol, Gaizka, Beñat, Lorea eta Aiora ageri dira, Julen begiralearekin eta Koldobike gurasoarekin.

diak, ehiza pabiloiak, eta Gurutzeren abadia tar-tean. Igandean Budapestera joan dira, eta bertan hiriaren bisita panoramiko eta eraikinen bisitaldiak egingen dituzte. Tartean Danubio errekan kuzeroan ere gozatuko dute. Eta horrela, etxera bueltatzeko eguna. Astearte ilunabarrean berriz ere Madrilera hegazkinez joan dira, eta arrats guzia autobusez igaro ostean, herrira ailegatu dira. Ongi pasatu dutelakoan gaude!

Urrezko Ezteiak

Aurtengo 50 urte ezkondu dituzten hiru bikote ditugu herrian: Osildekobordako Tomas

Taberna eta Julita Iturria, (maiatzaren 16an beteak); Lorenzo Iparragirre eta Loreto Taberna Urdinbordako senar-emazteak; eta Juanito Leiza eta Milagros Mitxelena Osiñalde etxeko bikotea. Hiru bikoteek familia ederrak hazi dituzte eta oraindik ere aski bizkor eta osasuntsu daude. Aunitz urtez eta zorionak denei!

Herriko pilotariak

Pilotak herrian duen afizioa ezin da ukatu, eta modalitate batean edo bertzean, ederki moldatzen dira herritarrrak. Irungo Kurpil Kirol Taldeak antolatzen duen txapelketan, erraterako,

hiru ordezkari izan ditugu finalean. Gazteen mailan, Joseba Madariaga, Hodei Iturriotz lagun zuela, eta senior mailan, Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena. Finalak joan den ortziraletan, ekainak 22, jokatzeak ziren, baina leerro hauek idazterakoan ez genuen finaleko emaitzen berririk.

Bertzalde, Lesakako xokoko pilota txapelketan, bertze bi ordezkari izan ditugu: Jose Agustín Goñi eta Jabierto Iparragirre. Azken hau, finalerdietan aritzeko zen, baina aitzineko kasuan bezala, hau idazterako ezin izan genuen jakin finalerako txartela lortu zuen alaez.

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ERREKALDE

Plater konfekturak

PATXOKAK

Ongi pasa bestak!

Tel: 948 630 254 BERA

BERA

Zera inguruak klase guztietako insektuz (kamorra, zinoarra, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamendurak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 587 • Zakuñ, 42 A • BERA

SUNBILLA

Udal hautetsi berriek ekainaren 16an hartu zituzten karguak eta 21ean lanak banatu

EAKo Pako Errandonea izanen da alkate hurrengo lau urteetan

Jaione OTXANDORENA

Joan den ekainaren 16an hartu zuten kargua udaletxeko alkate eta zinegotzi berriek. Egun horretan, azken zortzi urtetan alkate izandako Jose Mari Hernandorenak, bere alderdikidea den Pako Errandoneari eman zion alkatetzako bastoia, eta gainontzeko zinegotziek ere beraien karguak hartu zituzten. Hala ere, ekainaren 21ean egin zuten lan-arduren banaketa eta modu honetan geldituko da datozen lau urteetarako: Jose Miguel Zelaieta eta Pako Errandonea hirigintza eta mendietaz arduratuko dira; Margari Capdeki eta M^a Jose Mitxelena mankomunitateaz. Ainhoa Etxebeste

hezkuntzaz, eta Vidal Ibarra eta Santi Arretxea, Kultura, Bertiz Par-tzuergoa eta Jaialdie-taz.

OHARRA

Azkeneko aldizka-rian, udal igerilekurako bonoak igerilekuan atera zitezkeela jartzen bazuen ere, igerilekuan eguneko sarrerak ba-karik atera daitezke, eta bonoak, Rural Kutxan eta Nafarroako Kutxan.

Quebrantahuesos bizikleta lasterketan lau herritar

Ekainaren 23an San-biñanigon jokaturako *Quebrantahuesos* txirrindularitza proban lau herritarrek parte hartu



ARTXIBOKOA

Garikoitz Larraburu, Xabier Irazoki eta Esteban eta Jon Maritxalar Kebrantahuesos lasterketan izan dira. Argazkian Garikoitz eta Joana Hernandez na tandem ibiltzen.

zuten: Garikoitz Larra-buru, Xabier Irazoki, Es-teban Maritxalar, Iker Mariezkurrena, Xanti

Arretxea, Enrike Irazo-ki, Iñaki Agesta eta Jon Maritxalarrek. 205 kilo-metroko lasterketa egin

beharizan zuten, eta lau mendate igo behar izan zituzten parte-hartzaileek.

1951tik Ientzeria-etxea
Casa Cambra
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634
 udaberriko eskaintza berria

albornozak • mantelak • kuxinak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak toallak • edredoi-azal nordikoak

MALERREKA

Pedro Grazenea erremontista omendu dute

Pilotarien Batzarrak antolatutako
bestan omendu zuten, Mutrikun

ttipi-ttapa

Ekainaren 17an Pedro Grazenea *Elgorriaga* omendu zuten Mutrikun. Pilotarien Batzarrak pilota elkartek urtero egiten duen bestan omendu zuten bere jaioterriaren izena daraman erremontista. 1929an sortu zen Elgorriagan eta 32 urtetan profesionala izan den jokatu zuen, aitazinean beti. Gerora, masajista lanetan aritu izan da 22 urtetan Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

Ezkurako Udaletxea

Nafarroako Gobernuak

32.226,97 euroko dirulaguntza onartu du Ezkurako udaletxearen obrak finantzatzeko. 46.038,53 euroko aurrekontutik %70a da herriak jasoko duena, eta eraikinaren fatxada eta teilatua eraberritzeko gastuetara bideratua izanen da. Laguntza 2005-2008ra begira Gobernuak egindako Tokiko Azpiegituren Planaren barrenean onartu zuten ekainaren 19an.

Mendiko pisterako araudi berria Beintza-Labaien

Beintza-Labaiengo



ARGAZKIA: ZALDUA

600 euroko saria banatu du Doneztebarrak Merkatarik Elkartek

Doneztebarrak Merkatarik Elkartek eman du Udaberriko Kanpainako saria. Argazkian ageri da, elkartearen izenean, Esther Eskudero —San Miguel-Eskudero taxia— Fermin del Villar Peguero irabazleari saria ematen. Ferminek 600 euroko agiria eskuratu du Doneztebeko komertzioetan gatzatzeko.

Udalak mendietara doazen pisten inguruko ordenantza berria onartu du. «Pistak aunitz erabiliak direla» iritzita, hiru helburutan hartu dituzte erabakiak Udalak:

«ondare naturalak zaintzea, erabiltzaileei erabilpen harmoniatsua ematea —batez ere herriarrei— eta erabilera egoera onean mantentzea».

Bestetan, Lan Bulegoa itxita

Doneztebeko Sanpedro besten harira, Lan Bulegoa itxita egonen da ortziral honetatik, uztailaren 3a bitarte.

Pinturas Pikabea Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guztiak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

SOULE

hileta artisa
Tresas 483 444
Mug. 627 622 333

ERROTAZAR

harategia

Bertako
produktuak

Ezlogara, 3 • BERA
Tel/Fax: 948 630 088

AZPIEGITURA

Bidasoaldeko gasbidearen proiektua bere gain hartu du Nafarroako Gobernuak

Azpiegitura berriak 35 kilometro izanen ditu eta obrak 10 hilabetez egitea aurreikusi da

tti-pi-ttapa

Nafarroako Gobernuak udalez gairdiko proiektu sektorial izen-datu du Lesaka eta Elizondo bitarteko gasbidearen proiektua. Horrenbertzez, Gobernuak arduratuko da Sunbilla, Doneztebe, Bertizarena eta Baztanen Gas Navarrarena den proiektua bultzatzeaz. Helburua presio handiko gas banaketa garatzea da, eta guztira 35 kilometroko luzera izanen du azpiegitura berriak. Aurreikusitakoaren arabera, lanek 10 hilabete iraunen dute, eta aurrekontua 4.204.770 eurokoa izanen da. 6.200 herritarrentzako hornidura izanen da, baita Legasako Aceralia enpresarentzat ere. Hornituko dituen herrietan barna pasatzeaz gain, zati batean Igantziko lurretan ere pasatuko dela, eta ahalik eta etxe gehienetara ailegatzeko asmoz, hasierako proiektuan aurreikusi gabeko loturak ere eginen dira. Abiapuntuan, Bera eta Lesaka arteko gasbidearen zatian, neurketa estazioa eraikiko da, eta gainerako ibilbidean lau erregulazio estazio. Orain arteko sareko gasa Irundik Lesakara ailegatzen da, eta eraikiko den gasbide berri honekin Elizondoraino ailegatu da. Egitasmo hau Nafarroako Gobernuak eta Gas Navarrak 2010era begira onartutako Nafarroako Plan Energetikoaren baitan dago.

Rural Kutxaren Gordailu Berezia



EUREKA!

**DEN-DENA DUEN GORDAILU BAT
ERRENTAGARRITASUN ALTUA
ETA SEGURTASUN OSOA**

INBERTSIOAREN %40a

%6,50
%6,60 T.A.E.

6 hilabeteko epean

INBERTSIOAREN %30a

%6,50
%6,50 T.A.E.

12 hilabeteko epean

INBERTSIOAREN %30a

%6
URTEKO NOMINALA

12, 24 edo 36 hilabeteko apean, akzio-saskiak duen bilakaeraren arabera (*)

%100ean bermatutako kapitala

Akzioak: Telefónica, Santander, Iberdrola eta Inditex.

(*) Lehen urtearen bukaeran 5 akzioen kotizazioa hasierako erreferentziaren pare edo gainetik geldituko balitz %6 T.A.E. eskuratuko da; %12 bigarren urtearen bukaeran gertatuko balitz (%5,83 T.A.E.) eta %18 hirugarren urtearen bukaeran (%5,67 T.A.E.), baldintza hau betetzen den urtean Gordailua automatikoki kitatuz.

Eskaintza honek balio du 2007ko uztailaren 5a bitarte edo jaukipena bete arte, aurrezki garbiaren maila Nafarroako Rural Kutxan handitzen duten pertsonentzat.

www.ruralvia.com
Tel: 902 310 902

nire aukera



MALERREKA

Ia 60 zirrika bildu ziren Leurtzan Ingurugiroko Bolondres Egunean

Nafarroa osotik etorritako 18 lagunek parte hartu zuten

Mikel ALBISU

Nafarroako Ingurugiroko Baliabideen Erakundeak (CRANA) antolatua, eta bertako udalen eta Orgiko Natur Guneo zaindarien laguntzarekin, ekainaren 2-an Bolondres Eguna egin zen Leurtzan.

Nafarroa osotik etorritako 18 lagunek parte hartu zuten bi taldeetan antolatutik. Lehenengo taldeak Gorostietako gaineko (Saldias-Orokietaren errepidean) zaborte inguruetan bat garbitu zuen, eta inguru hartatik hainbat zabor atera zituzten, tartean, kasik 3 tona neumatiko. Neumatiko hauek bereiztuta bildu eta Iruñera eraman zituzten, birziklatzeko.

Bigarren taldeak Leurtzatik Eltzaburura (Ultzama) doan kaltzadaren tarte bat garbitu zuen, Zumardenako gainean, eta hala, bi bailarak elkartzen dituen bide eder hori erabat libre gelditu zen.

Eguna akitzeko, bolondres guztiak Leurtzan elkartu eta, Beintza-Labaiengo trikitilari gazteek alaiturik, bazkari eder egin zuten. Mila esker herritik eta kanpotik etorri ziren guztiei !!



ARGAZKIAK: MIKEL ALBISUK UTZIAK

Bildutako zabor kopurua hagitz handia izan zen.

HASI DA URTEGIKO UDA SASOIA

Leurtzako Urtegieta aindarien sasoiaren udaberri hasiera hasi zen. Aurten, Urrozko Maria Jose Arburua eta Josune Lazkano dira zaindaria, eta momentuz, eguraldiak sobera lagunduez duenez, ez da sobera jende hurbildu.

Urrotz eta Beintza-Labaiengo Udalek kudeatzen dute 381,5 Hektareko Natur Gunea eta datozen urteetarako badiu hainbat erronka: beheko urtegia inguratzen duen bidea elbarrituentzako egokitzea (III. Fasea), Natur Gu-

nearen balio naturalak landu eta ezagutzera ematea eta bertako zaindarien lan egonkortasuna bermatzea.

2002an hasitako gestioa hasia da bere fruituak ematen: bisitarien kontzientzia gero eta haundiagoa da eta baita bertako zaindarien dedikazioa ere, paisaiaren kaltetaren onerako. Zerbitzuen eta mendi ibilbideen mantentze egokia oso baloratua da. Bertze aldetik, bisitarien kopurua haunditu bada ere, udan ez da masifikazioz izaten, bisitari aunitz udaberri eta udazkenean

etortzen direlako. Inguru zoragarri hau denok disfrutatu eta denon artean mantendu behar dugu. Ongi etorriak izan zaitezte!



Garbiketan parte hartu zuen taldea.

35.000 bisitari 2006an

2005arekin konparatuz, 2006an 10.000 gehiago ibili ziren. Bi arrazoi ikusten dira gorakada hori ulertzeko: eguraldi ona eta bertako zaindarien lanaldi-luzapena udazken osoan.

Bisitarien gorakada kezkarria izaten bada ere, bada datu interesgarri bat: udako turisten kopurua mantendu den arren —masifikazioz gabe—, udaberri eta udazkenean nabarmen haunditu da. Bisitarien profila aldatzen ari da: *dominguero* edo *parrilleroen* kopurua mantendu edo jeitsi egin da (azken bi urteetan sua egitea debekatua dago). Aldiz, edozein urtarotan naturaz gozatu eta bertatik paseatzera etortzen direnen kopuruak goiti egin du. Joera hauek mantentzea da helburuetako bat.

Donamaria'ko Benta
Erreserba bidez telefonikoki: 948 450708

Menu MEXIKAR GASTRONOMIKOA:
25 euro pertsona bakoitzeko
Mexiko ezagutu gastronomikoki
sukaldari mexikarra

2007-06-09
2007-07-14
2007-08-11

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14

Orbelak 19. aldetik gurean daude, orain
19. aldetik gurean daude, orain
19. aldetik gurean daude, orain

ORBELA

ttipi ttapa

☎ (0034) 948 635458

BERTIZARANA

Artisautza eta ingurumen azoka egin zen Natur Parkean

Gaztetxoek zaldiekin ibilaldiak egiteko aukera izan zuten

ttiipi-ttapa

Artisau eta baserriko produktuen erakustoki izan zen Bertizko Natur Parkea ekainaren 10ean. Bertiz Partzuer-go Turistikoak antolatua, artisautza eta ingurumen azoka egin zen aurten lehenbiziko aldiz. Haur eta gaztetxoek, Bertizko Natur Parkearen inguruetan zaldi gainean ibilaldiak egiteko aukera izan zuten. Piraguekin Bidasoan ibiltzea aurreikusia zegoen, baina euriarengatik erreka hazi egin zen eta jarduera bertan behera uztea erabaki zuten. Hurbildutako bisitarien artean zozketat bat egin



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Jendeak artisauek egurrarekin kaikuak nola egiten dituzten ikusi zuen.

zen. Emandako sariak Hiruak Bat Elkarteko

landetxe batean aste-buru bat eta Martikoko

ahate-produktuen sorta izan ziren.

HEZKUNTZA

Eskualdeko ikasleen ia %97ak gainditu du selektibitate azterketa

ttiipi-ttapa

Bera, Leitza eta Le-karozko institutueta-ko ikasleek emaitza onak eskuratu dituzte selektibitate-azterketan. Aurkeztutako 65 lagunetik 63tik gainditu dute, %96,92-ak. Hain zuzen, Le-karozko A eredu-ko bi ikasle dira gainditu ez dutenak. Nafarroa osoari dagokionean, berriz, guztira 1.998 ikasle egin dute proba eta %94,74ak gainditu. Gainerakoek irail-lean izanen dute bigarren aukera.

ARESO

Eliza konpontzeko laguntza eman daiteke Nafarroako Kutxan

Apezarik ez dagoelako, bi seglarrek ematen dute meza igandetan

Juana Mari SAIZAR

Elizaren egoera aspalditik berrikuntza beharrean dago, batez ere teilatuari dagokionean. Euria egitean, itxuzurak azaltzen dira bizpahiru tokitan. Hezetasunarekin, barrengo pareten igeltsua lurrera erortzen da eta zuloak bobeda-

ren sapaian ageri dira. Elizaren eguneroko gas-tuak mantentzeko igan-deko mezetan lortutako diru-laguntzarekin ez da nahikoa, eta aurten, Nafarroako Kutxan proiektu bat aurkeztu da elizaren konponketak egiteko. Beraz, herritar guztiei deia zabaltzen zaie



ARTXIBOKOA

Elizaren egoera ez da oso ona eta berrikuntza beharrean dago aspaldian.

beren proiektuen asmoak herriko elizaren-tzat izan daitezten. Parrokiaren izenean, eskerrik asko.

Bertzalde, ekainaren 17ko meza, lehenengo aldiz apezarik gabe eman zen. Bi seglarren artean eman zuten me-

za eta, hemendik aurrera, horretara ohiturtzen hasi beharko da pixkanaka-pixkanaka, apaiz eskariarengatik.

GOIZUETA



ARGAZKIA: AITZIBER LEKUONA

Aho batez lortu zuen alkatetza EAE-ANVko hautagaiak

Elkartasunakoen botoa ere Miel Joxeren aldekoa izan zen

Esteban AROTZENA

Normaltasun osoz eta ezustekorik gabe joan zen ekainaren 16ko udal berriaren osaketa ofizialaren akitaldia. Horretarako, legeak agintzen duen protokologuia pausoz-pauso eramazuen Mirian Arotzena idazkariak, alkatetaren hautaketaren bozketara ailegatu arte. Hautagai bakarra Miel Joxe Lekuona zen, eta aho batez onartu zuten posturako EAE-ANVko

zerrendaburua, Elkartasunakoek ere aldeko botoa eman baitzioten. Honen aurretik, Espainiako Konstituzioa beteko zutela ere zin egin zuten zazpi kargudun berriek, baina guztiek garbi utzi zuten «*legeak agintzen dielako*» egiten zutela hori. Imanol Legarretak alkate berriari aginte makila eman zioenean bukatu zen ak-tua —argazkian—. 40 herritar inguru elkartu ziren batzar aretoan.



ARGAZKIA: ENERITZ AROTZENAK UTZITAKOA

Xiba euskal jokoen finalean izanen da Goizueta

Larunbat honetan, hilak 30, ospatuko da Zuberoako Mendikotan herrien arteko Euskal Joko eta Jolasen Xiba Jaialdiaren finala, eta Goizuetako taldea bertan izanen da, 2004ko edizioan bezalaxe. Ekainaren 9ko Atarrabiako kanporaketan eskuratu zuten goizuetarrek finalerako txartela. Lau herri lehiatu ziren bertan, eta gure ordezkariak bigarren sailkatu ziren, Iraitnaren atzetik, eta Iruña eta Uhart-Arakilen aurretik.



ARGAZKIA: JOSUNE NARBARTE

Ana Urdangarini omenaldia

Aurreko alean aipatu bezala, Ana Urdangarin andereñoak agur esan dio Goizuetako eskolari 18 urte bertan igaro eta gero. Irakasleek, ikasleek eta Guraso Elkarteak ongi merezitako omenalditxo eskaini zioten kurtso bukaeran.

BEHETIK
aulki jasotzaileak

943 372 870

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnak: 948 639 735 - 607 406 781

Ark_b arkitektura bulegoa

Eraikuntza
Hirigintza
Udal-ohikuntza

Celia Lana Ranz
Huarte Gatzai 7 - 31860 Leiza
645008478 tel

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatua

948 561 400
948 500 433

Frontalako etate: 14
Arretakile 3D
ELBETE

ETXARTE
eraikuntza enpresa

*ongi
pasa
besta*

Biurrana auzoa, Etxartenea • LESAKA
Tfnoa-Faxa: 948 637 709 • Mug. 608 770 850

Transportes MARITXALAR

GORRA
SAN FERMIN
Lesaka • Otsango auzoa • 606 938 271



INDARRI
Hotz komertziala eta industrial
Aire girotua
Tel: 948 630 898
Mug: 639 103 305 BERA
Aupa Sanfermin !!



ONGI PASA
SAN FERMINAK
BOKATAK
PINTXAK
RAZIBAK
KAZULAK
PLATER KONBINATUAK
Menu berezia
BORONDATEA ERRESPETATU

Semper



bestak
internet
bitaritz
egileko
akuntza

autoeskola

Semper
BESTA ON BATZUK
PASA ITZAZUE!
BERA TfnoFax: 948 630 298 • LESAKA Tfno: 948 637 206

Ongi pasa bestak!



bidasoa arkitektura bulegoa

Arretxea 21 • 61100 Lesaka • Tel: 948 637 583 • info@bidasoa-arkitektura.com



• Barrio de la Gora
• Gora Sanferminak
• Pintxak
• Salsas de fresheria
• Sarnoa d'fopa
• Gintxakak

Comercial Maria Jesus
Plaza Zaharra, 28 • LESAKA • 948 637 105-948 637 220

BIKAIN
ERAKUNTZAK KONSTRUKTIOAK



Luis Otebidea Alzugarai

652 764 613

Imaginazioa mugatzen gabe

Ongi pasa
San Ferminak!!!



ORONOX
ARGAZKIGINTZA
oronox@biakain.com

Plz. Zaharra, 11 • LESAKA • 948 637 593 • 620 056 739



TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARRI

Gora San Fermin !

Otsango industrialdea 14 nabea • LESAKA
☎ 948 638 052 • 669 840 198
Fax.: 948 627 578 • transtxakain@yahoo.es

**ERAIKUNTZA
TRADIZIONALA**

Lurra
Harria

...
Ongi pasa bestak!
☎ 652 764613



KATTU
OSTATU-JAETEXEA

MENUAK • PLATER KONBINATUAK • BOKATAK
ONGI PASA SAN FERMINAKI
Arretxea, 22 • Telf.: 948 627 573 • LESAKA

**BITTIRIA
ARDOTEGIA**

Tfnoa: 948 627 508
BITTIRIA, 61 • LESAKA
ONGI PASA BESTAKI



Bestetako irudirik bitxienak

ttipi-ttapa telebistan

ongi pasa bestak



Lesakako bestak 07

ekainaren 29tik uztailaren 10era



ortzirala 6 Bezpera eguna

12:00 Herriko Etxetik igoko den **altxaferoaren eztanda** emanen die hasiera besteei.

Ordu berean

Txistulariek, soinulariek, Incansables txarangak, trikitilariak eta **haur ttikien danborradak** girotuko dituzte herriko karrikak euren soinu alaiekin.

17:30 Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen **erakustaldia**, Frontoian.

20:00 Peñen ordezkarien altxaferoa.

Ondotik

Danborrada nagusia abiatuko da erraldoi, buruhandi, danborjole, soinulari eta Lesakako Bandarekin. Karrikaz-karrika, herri osoari itzulia emanen diote.

24:00 Dantzaldia **Triki take** taldearekin Plaza Zaharrean.

Gauetz **"INCANSABLES"** txaranga karrikaz karrika.



GARBILEKU
Garbitegia Lesaka

Plaza Berria, 10 • Tfnoa: 948 637 438

Kolapregi Auzoa, 6 Dendurinea Etxea 31770 Lesaka-Nabard
Tel: 948 627 554 • 656 763 186

Txus Ubiria Andueza
margoketa lanak • pintor

Txistulak • txistulariak • txistulak maiztasunak
eskalako haurren txistulak etak...
berdatsen ditugu, eta orain San Ferminak
iristean dardela eta, kamisetak poto
bakiatzen lagatzen, danborradaren
lagatzen, zapak eta poto bakiatzen
blauk ere izenak berdatsen ditugu

Tel: 948 627 660
689 481 900

etxeri:
Plaza berria 4 -ra
eta ikusi bertako
eskalatza!!!

XATURETXEA
JATETXEA

ONGI PASA BESTAKII

Tfnoa: 948 637 027
LESAKA

Otsango

Astelehenerdik ortziratera
pintxoak, bokata eta razioak
Eguneko menua 8 eurotan
Asteburutik plazer konbinatuak
San Ferminetako menu berezia

ONGI PASA BESTAKII

Otsango Ind. • Zambra ondoan • LESAKA • 948 638 126

Mikel UBIRIA
eskabazioak

eskabazioak eta
garraioak

Tel: 948 637 214
Mug: 619 716 322
608 779 641
Bitoria plz. 8 • LESAKA

AROTEGI METALIKOA

S. Odriozola - B. Huici

☎ 948 631 244 • Fax.: 948 625 564

Alkalaga Industrialdea
Elutxa karrika • Pab. 3/18
31789 LESAKA

Ongi pasa San Ferminak !!!



Lore eta landareak

Ongi pasa Sanferminak

Frain auzoa • **LESAKA** • Tfnoa: 948 637 826

ONGI PASA
BESTAK!



««««« I R U K I D E »»»»»

Eguzki panelak • ▶ Iturgintza 630 441 315
Industria mantenimendua • 628 015 933
Aire egokitua •
Elektrizitatea • 606 980 440

Zalain Industrialek 42 B - 15 • 31700 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 382 • email: zerbitzu@terra.es



Jardineria-Lorazaintza

JOHN TELLETXEA MAYO

INGENIERO TECNICO AGRICOLA

Gora San Fermin!

PARKE PUBLIKOAK ETA LORATEGI
PRIBATUA SORTZEA ETA ZAJNTZEA

Bittiria, 4 - 2º Esk. • Lesaka
619 418 683



BORTZIRI
UNSION ANAIK

Sukalderako altzariak

ONGI PASA SAN FERMINAK!

Berezu etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



• Ateak eta zerrailak saldu eta jartzen ditugu
• Zurgin lanak orokorrean
• Aluminioa

ONGI PASA SAN FERMINAK

Zarandía 9 • Tel/Fax: 948 627 584 • LESAKA
M. 626 500 459 • esther-ateak@terra.es

KOXKILA

OSTATUA

**Besta zoriontsuenak
Ospa Ditzagun**



Zarandía Kalea, 4 • 948 63 72 43 • LESAKA

KOXKILA

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

LESACA
AUTOESKOLA

ongi pasa bestak!



- Arreta pertsonala
- Orain internetez ere

Albistur 39 - H
LESACA
Tfnoa: 948 637 870



MADERAS
ERKIZIA, S.L.
EXPLOTACIONES FORESTALES
BASO USTIAPENAK

GORA SAN FERMIN!

Plaza berria, 7
31770 - LESAKA

e-posta: erkizia@maderaserkizia.telefonica.net

Telefonoak: 618 48 72 74

618 48 72 75

Tel: 948 63 71 58

Faxa: 948 63 80 31

Matias MITXELENA
eraikuntzak



- Etxeak
- Zaharberritzeak
- Teilatutak

Tfnoa: 948 637 183 608 777 908
LESACA

MARMOLES
ALKAAGA, S.L.

Gisa guztietako lanak marmol eta granitoan

ONGI PASA BESTAK!

Alkalaga Ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) • LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731
marmolesalkaaga@telefonica.net

ainhoa
estilista

berria RUTH ILEAPAINDEGAN
betiko tokiak aurkituko gaituzue!!

ALUPEDI DEPLAZAIOA,
SOLARIUM, SPRAY SOL,
MAKILIA, MANIKURA,
ILE BILDUAK,
TRATAMENDUAK,
ILE-LUZAPEN...



Bittiria 59 • LESAKA • 948 637 436

JOISA



AROTEGIA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
MAKINA ERREMINTA

Barandak, balkoiak,
hesiak, forja artistikoa...

ADU 16 Pol. Ind.
LESACA 31770
Nafarroa

Tel.-Faxa: 948638150
Mugik.: 646774117

Lesakako bestak 07

ekainaren 29tik uztailaren 10era

larunbata 7

8:30 Ezpatadantzarien **meza ixila**. Joan-etorria Txistulari bandak lagunduta egingen da.

10:30 **Meza Nagusia**.

Ondotik Fermin Zaindariaren irudiarekin herritik **prozesioa**.

Ondotik Onin errekaen bi aldeetan egiten den

ZUBIGAINEKOA. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinetik.

18:00 **Bezperak**, Lesakako Abesbatzak kantatuko du.


Ondotik Ezpatadantzari taldeak mutil-dantza, neska-dantza, aureskua eta jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean.

19:30 **Bertso jaialdia**, Arrano Elkarteak antolatua, Plaza Zaharrean: X. Silveira, M. Lujanbio, S. Lizaso, U. Iturriaga, J. Barberena eta I. Olaetxea. Gai jartzailea: A. Rekondo.

19:30 **Zirkus Mirkus, kale animazioa** haurrentzat, Bittiria karrikan barna, Detraka animazio taldearen eskutik

Gauetz **TXIMELETA** taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean,

Gauetz **"INCANSABLES"** txaranga karriketan.



igandea 8 Peñen eguna

9:00 Peñen gosaria

10:30 **Peñen danborrada**, Beti Alai txarangarekin.

12:00 Betizuak, Plaza Zaharrean, Beti Alai txarangarekin.

17:00 Plaza zaharrean **Kanpanolue** haur ikuskizuna.

18:00 Peñen kontzentrazioa Txarangarekin, **Peñen jeitsierarako**.

20:30 Betizuak.

20:30 **Mariatxiak** kalejiran, Angeles de Mexico taldearekin.

Gauerdian Plaza Zaharrean, **Diskofesta, IMANOL**

IGOMAR S.L.

igeltseritza orokorrean

Gora San Fermin !!!

948 637 873
948 637 320

LESAKA

antardaki xizpake
Estilista Zentura - Depilazioa
Aza eta gorputz tratamenduak
Depilazioa
Solariuma - Masajoa
Pedikura - Manikura
Albistur 39
31770 Lesaka
Tel: 948 637 703

APITTU
Aluminiozko Lehoak, Kontralehoak,
Ateak, Garajeak Ateak eta
Barandak
ONGI PASA SAN FERMINAK!
Osango Auzoa, 7 - Pab. - LESAKA - Tel/Fax: 948 638 297
apittu@hotmail.com

MERTZERIA **BESTAK ONGI PASA !!**
- Deñe -
LENTZERIA
Beteke Plaza, 10
Tel. 948 627 514
31770 Lesaka - Nafarroa

Dia % Sanferminetan
otordu gaxoak
prestatzeko
LESAKA LESAKAKO DIA
Dia % Plaza Berria, 10 - 948 637 335

Etxarte
bitxidenda - erlojudenda - kirol trofeoak
ONGI PASA HERRIKO BESTAK I
Albistur karrika, 1 - 948 637 205 - LESAKA

FAGOAGA HARATEGIA
Aupa San Fermin !!
Albistur, 17 - 948 637 78 69 - LESAKA

TALLERES FRAIN
LESAKA - Tel: 948 637 525
Ongi pasa bestak!

BAR FRONTÓN
PLAZA BERRI Nº30/948627516/31770-LESAKA

TALLERES BERRIZAUN

GASOLINERA LESAKA



IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Tel.: 948 63 74 40
31770 Lesaka (Navarra)

Kalefakziorako Gasoila
etxez etxe banatzen da

Besta ederrak pasa!

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

LESACA: Bittiria, 71-behea
Tel.: 948 637 050 - Faxo: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4
Tel.: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713
artekari@artekari.com



Aliprox

Zure marka berria
liderra den talde
baten babesarekin



Urdaitegia



Harategia



Arraindegia



Frutategia

☎ 948 637 264

Bittiria, 67 · LESACA



Jaime Urrutia, 35 · ELIZONDO
Tfn: 948 580 128

ONGI PASA BESTAKI



Juan Luis Otxoteko

pintorea

Etxe barrunean
eta kanpoan pintura
Gotele
Pintatutako papera
Enpapelazioak



Esleatu aurrekontua
inongo konpromisoarik
gabe.

Herrutia, 678 993 898
Bittiria 26 30 · Lesaka
Tel. - Fax 948 637 982

Haur jaiaberrientzako
osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208



Gora San Fermin!

Importazioko
bakailu gaztuta,
gizatua
eta konjelatua



Alkaiaga Ind. · Lesaka
Tel.: 948 631 536 · Fax: 948 631 550



Arretxea, 7 behe B2
LESACA
948 638 110

ONGI PASA
BESTAKI



KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



jai alai eta
pozgarriak
izan itzazuen

Plaza Zaharra · 948 63 72 87
LESACA

Lesakako bestak 07

ekainaren 29tik uztailaren 10era

astelehena **9** Haurren eguna

- 11:00** **Haurrendako animazioa:** Gorriti, Osasundegi ondoko plazan.
- 12:00** **Betizuak**, Plaza Zaharrean. BETI-ALAI txarangarekin.
- Arratsaldez** Irain Eskolako patioan Navar Produccion **haurren ikuskizunak:** Karts, Puzgarriak ...
- 18:00** **Esku pilota** partidak, Arkupe Elkarteak antolatutak.
- 19:30** Herriko gazteen **DANTZA-JAZZ** Plaza Zaharrean.
- Arratsaldez**
- Gauetz** Dantzaldia **EGAN** taldearekin Plaza Zaharrean. **Kale-musika** maratonia
- 20:00** Onin inguruan Skasak Taldea.
- 21:00** Zabaleta inguruan, **Okupando Rom@** Taldea
- 23:00** **Batukada** "Batu Gaitu" taldearen eskutik
- 24:00** **Kalapite** Taldea txoznatan.

Egun guztian **BETI ALAI** txaranga kalez kale.



asteartea **10** Ezkonduen eguna

- 10:30** **Haur eta gurasoen danborrada** BETI-ALAI txarangak lagunduta.
- 11:30** Andra Mari Zahar Etxean, **Nafarroako Jotak**. LOS PAMPLONICAS taldearekin.
- 12:00** **Betizuak**, Plaza Zaharrean, BETI-ALAI txarangarekin.
- 16:30** Elzetako Plazan, Detraka animazio taldearen eskutik **umeendako eskulan tailerrak**.
- 18:00** Plaza Zaharrean, **Nafarroako Jotak**, LOS PAMPLONICAS taldearekin.
- 18:00** Eskolttiketik Txakainera kalejira, Musika Bandarekin.
- Arratsaldez** Plaza Zaharrean, **JOSELU ANAIK**
- Gauetz** taldearekindantzaldia
- 3:30** **Jai-hilak**. BETI ALAI txarangarekin.

LATSAGA
MUS-ARTZARUENKO PARTIDAZUEN

- Zuzen: programazioa eta enkargatzea
- Bida / Maitasunaren erakundeak
- Sinesmenaren erakundeak
- Txarriak elkarrekin eta solasean

Lesaka - T/F 948 637 545 E: latsaga@telefonica.net

izarra

okindegia

GORRA SAN FERMIN

Tel: 948 637 855
Plaza Zaharra, 13 - LESAKA

IÑAKI OLAIZOLA

elektrizitatea orokorrean

GORRA SAN FERMIN

Bittiria, 39 - LESAKA
Tfnoa: 948 637 405 • 670 417 499

ZOANSA

BEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

ZOANSA

MARKA GUZTEN KONPONKETA

Barria, 2 - Alkalaga Industrialea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

TXURULA KRISTALDEGIA

CLIMALIT kristal bikoitza
ISPILUAK edozein lodiera eta kolorekoak
alakadunak, kanteatuak...
BEIRA-PLAKA LANDIAK
BEIRA BLINDATUAK

Antoiz, 34 C • LESAKA • 667 424 649



Carpintería Mecánica *Aranguren* *e hijos S.L.*

ONGI PASA BESTAK !

Alkaiaga Ind. 1-1 • Baldrun kalea • 31789 LESAKA
Tfnoa: 948 625 515 • Faxe: 948 630 937
caranguren@aranguren.e.telefonica.net

LESAKAKO UDALAK
San Fermin zoriontsuak
opa dizkie herritar eta
kanpotik etorritako guztiei



**Lesakako
Udala**

Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua



Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

Proiektu honek aukera ematen dio MAGNARI aparteko natur baliabide honen irabaziak Baztango jendeekin partekatzeko, euren bizian integratzeko eta elkarrekin aurre egiteko etorkizunari.




ABERASTASUNA



→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniariak, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegia sektorea.

→ Baztango gazteriari **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko berriz eskualdetara joan behar izatea saihestuz.



INGURUGIROA



→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi etaazienda azkarragoak.

→ Ingurumen kalitatearen **kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitza horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ Teknologiarik **aurreratuena ingurumenaren zerbitzura**. Uhal garraiatzaileen karentza, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratzeko dinamikoa bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.

→ Artesiagako Magnesitak erreibua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.

ETORKIZUNA

→ **Epe ertain eta luzerako proiektua**. Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain dauden jardura atxikitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

LEITZA

Zabalduta dira igerilekuko ateak

Eguneko eta uda osoko bonoaz gain, 10 egunetakoa ere bada

Joseba URKIOLA

Eguraldia berotu eta eguzkia ditzira dotoreenarekin janztearekin batera, Leitzako igerilekua prest da hiru hila-beteetako lanaldiari ekitoko. Ekainaren 18an zabalduta zituen ateak eta 2007-2008 ikasturtea hasi bitarte, zabalik egonena da.

Lehen bost egunetan arratsaldez bakarrik ireki dute badute ere, txikiak oporrak hartuz geroztik, 11:00etatik 20:00ak bitarte dagozabalik.

Igerilekura hurbiltzen den orok, prezio aldetik eskaintza bat baino gehiago edukiko du eskura. Eguneko sarrera soltea edota denboraldi guztirako bonoa egiteko aukera edukitzeaz gain, 10 egunetarako txartel berezia egin daiteke. Honetaz gain, igerilekuko taberna zabalik izanen da eta eguzkia era eroso eta lasaigarri batean hartu nahi duenarentzat hamakak alokairuan.

Tomas Erbiti eta Tiburtzio Azpiroz berriro Santiagon

Azken urteetako ohi-turari jarraiki, Tomas Erbiti eta Tiburtzio Azpiroz leitzarrek berriro ere Donejakueko bidea egin dute. Aurtengoan Orreagatik abiatu ziren eta beren bidaia, Galiziako Finisterra ospetsuan amaitu dute. Lehen pausuak maiatzaren 28an eman zituzten. Hastapeneko egun haietan eguraldi txarra izan zuten bidailagun. Dena den, behin Gaztelan sartuta, eguraldi ona izan zutela nabarmendu dute. Hiru aste igaro ondoren, eta hamaika izerdi ibilbidean utzita, Santiagoko hiriburura ekainaren 18an iritsi ziren. Finisterrera berriz, ekainaren 21ean. Ibilbide osoa behar bezala egiteko, egun askotan 35 eta 40 kilometro egin behar izan zituzten.

2007ko Plazaola aldizkaria abian
Tiburtzio Donearen jaiei



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Xabier Zabalo izanen da legealdi berriko alkatea

Legeak iragarri bezala, ekainaren 16ean aurkeztu zen datozen lau urteetako edukiko dugun Udala —argazkian hautetsi berriak—. Ekitaldian guztiek beren karguei zin egin zieten eta Leitzako herriaren alde lan egingo zutela hitz eman. Arrazoi desberdinak tarteko, Udala osatuko duten ordezkari guztiak ez ziren bertan izan. Halere, goiza inolako arazorik gabe burutu zen.

hasera emateko, hila-bete eta erdi besterik ez da geratzen. Hala, Leitzako Aurrera Kirol Elkartekoak 2007ko Plazaola aldizkariaren osatze lanean buru-belarri dihardute.

Hasteko eta behin, aipatu, aldizkariaren azalaren lehiaketa abian dela. Sariketa hau 17 urtetik gorakoei zuzendua dago eta landu beharrekoi gai nagusia Leitzako Pestak. Lanak aurkezteko epea ostiral honetan bukatzen da, eta interesatuek Aurrera Elkartearen egoitzara eraman beharko du bere lana. Kartelaren neurriak, 50x65 zentimetro izan behar ditu, eta «2007-TIBURTZIO DONEAREN PESTAK-29.Zenbakia» bezalako

xeheetasunak bertan txertatuak egon behar dute.

Bestetik esan, azalaren sariketa berezi honetaz gain, edozeinek aldizkaria hornitzen kolaboratu dezakeela. Lan hauek ere ekainaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira eta gertakari zaharrak, erreportajeak, txistak, komikiak eta antzeko idazkiak aurkez daitezke.

Gorritzaran Eguna uztailaren 1ean

Urteroko hitzorduari jarraiki, aurtengoan ere Gorritzaran Eguna ez du hutsik egingo. Gorritzaran auzokoek antolatzen duten egun osoko jai mamitsu eta hornitua, uztailaren 1ean

Basa Kabin izanen da. Aurtengoan protagonista nagusiak Sebastian Lizaso eta Mañu-korta bertsolariak izanen dira. Honetaz gain, urteroko Mus Txapelketa eta txokolatada ezaguna ere present izanen dira.

Egin Kantu! diska kalean da

Egin kantu telebista saioko diskak, orain gutxi ikusi zuen argia. Horretan, Beñat Urkiola 9 urteko leitzarrek parte hartu du. Berekin batera, beste hiru lagun ahotsak daude. Guztira 13 abesti grabatu dituzte eta leitzar gazteak bostetan hartzen du parte. Horietatik bitan, gainera, bakarrik abesten dituzte.



ALBAITARITZA LEKUNBERRI

Albisuale, 17 • LEKUNBERRI • Tfnoa: 948 604 530 • Larrialdiak 636 778 660

ttipi ttapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

BAZTAN

Virginia Alemanek hurrengo lau urteetarako alkate kargua hartu du

Udaleko lan-batzordeak ekainaren 23an eratzekoak ziren

Maite OTEIZA

Ekainaren 16an, eguerdiko 12etan, Baztango Batzar Nagusiko gelan Udal berria osatuko duten zinegotzi berriek beren karguak hartu zituzten. Nafarroa Bairen aldetik, Virginia Alemanek kargua errepikatuko du eta bera izanen da alkate, zazpi zinegotzirekin. Oposizioan, berriaz, UPNk sei zinegotzi izanen ditu, Begoña Sanzberro buru duela. Udaletxe inguruan Guardia Zibilaren presentzia nabarmena izan arren, ez zen isturik izan.

Adin-mahaia hone-laxe osatu zen: zinegotzirik zaharrena Remigio Lizasoain, gazteena Jon Dufurrrena, M^a Jesus Muñoz idazkaria eta Paula Casares euskara teknikaria. Pleinoa bukatzerakoan, Ju-

len Mitxelorenak eta M^a Carmen Irungaraik baliogabetutako ANVko zinegotziek hitza hartu zuten. Bi hauei legozkieken eserlekuak NaBai eta UPNri eman zaizkie.

Legaldi berriko udalbatzordeak ekainaren 23an osatu ziren.

Elizondoko komisarian foruzain gehiago

Pasa den abenduan zabaldu zuten Elizondon Foruzaingoaren komisaria. Orain lau foruzain daude, eta Nafarroako Gobernuak Barne departamentuak argitaratutako foru agindu batek dionez, laster hogeita lau izanen dira. Hogeita lau foruzain hauek Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka, Goi-



UTZITAKO ARGAZKIA

52 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu dira

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa egin zuen ekainaren 9an Arizkunenean. Hala, euskararekiko konpromisoa adierazten duten Baztango hainbat enpresa, saltoki eta entitatek ziurtagiria jaso zuten, guztira 52 entitatek. Ekitaldian izan ziren, bertzeak bertze, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, Virginia Aleman alkatea, Josetxo Apeztexea Baztango euskalgintzako kidea eta Xorroxin irratiko esataria eta Itsaso Aleman EHNEko ordezkaria. «Gu gara, guztiok elkarrekin, euskararen eguzkia pizten dugunak», adierazi zuen Mendigurenek, eta Virginia Alemanek, bere aldetik, erran zuen «merkataritza, zerbitzuak eta enpresa mundua da egun euskararen erabilera sozialak duen erronka nagusiatarako bat». Gisa berean, aipatu, martxoan Baztango Udalak hitzarmena berri zuela Kontseiluarekin.

zueta, Bortziriak, Lantz eta Odietako herrietan barna ibiliko dira. Denetara 27 udalerrri eta 25.425 herritar izanen dituzte beren ardurapean.

Auto istripu larriak

Bi egunetan bi istripu izan dira Baztanen. Ekainaren 16an, larun-

bat goizean, Iruritako Txoklero kurban, auto batek arbola jo eta irauli ondotik, lau xirrikak airean gelditu zen. Istripu ikusgarria izan zen, eta suhiltzaileek bertara joan behar izan bazuten ere, zorionez, gidariak ez zuen min handirik hartu.

Biharamunean, Erratzuko sarreran, San Pe-

dro Xaharrean, bi autok aurrez aurre elkar jo zuten. Bidea itxita gelditu zenez, Oronoz-Mugariko suhiltzaileak, ambulantiak eta foruzainak agertu behar izan zuten. Auto bateko hiru zaurituak Iruñerat eramane zituzten eta han ingresatu. Bertze autoko biak kolpeak izan zituzten.

POTTOKI
Pottokiri Plaza, 3-1. lehera
51003 ELIZONDO (Lafana)
Tel: 948 581 983
www.pottoki.com
info@pottoki.com
Aholkularitza lanak
9:30 - 15:00
16:30 - 20:00

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

Tel: 948 453 060
N-121-B, 666 km
LAMAIA

ARMUA
Jatetxea

Tel: 948 599 131
Lugarreanburdi errep. 3. km
URDZUBI

Herriz
HERRERRENTA
HERRERRENTA
HERRERRENTA

HERNANDEZ
LARRALDE

Pitti
eskalabazioak

Tel: 616 513 491

Mendiak eta abar. 34. ZUBETA

BAZTAN

Iruritako Gizarte Bilguneko obrak akitu dituzte

Herriko eskolako haurren antzerkiekin estreinatu zuten

Maite OTEIZA

Iruritako Damaso Zabala Gizarte Bilguneko obrak akitutzat eman dituzte, eta herriko haurrak izan dira lehenbizikoak leku berria estreinatzen. Hala, klaseko azken eguneko euren antzerkiak bertan egiteko parada izan zuten.

***'Hoy no se fia, mañana sí'* filmaren grabaketak Lekarozen**

Azken denboraldi honetan Baztan izenak harreman haundia du kultura arloarekin. Horren lekuko ditugu argitaratu diren hainbortze liburua, Baztango historian eta gure inguruan oinarrituak, baita Lekarozko kolegioan grabatzen diren filmak ere. Hain zuzen, ekainean Francisco Avizanda Iza-

bako zuzendariak bere film luzearen grabaketak ekarri ditu Lekarozera, *"Hoy no se fia, mañana sí"* filmaren grabaketak, alegia.

Iruñean eta Tafallan egon ondotik, Lekarozera etorri ziren, eta Madril izanen dira hurrengo eszenatokiak.

Bertan parte hartzen duten aktore-aktorea protagonistak Albert Prat, Carolina Bona eta Frank Capdet dira.

Baztandarren Biltzarreko dirua biltzeko tonbolako boletoak salgai

Urtero bezala, uztailearen 22an eginen den baztandarren besta haundirako tonbola antolatu du Baztandarren Biltzarrak. Sari zuzenak bi motatakoak dira: batetik, Baztango denda,



UTZITAKO ARGAZKIA

Denboraldi borobila egin du Baztan Futbol Taldeak

Gorabeheraz beteriko urtea izan da Erregional Mailan aritu diren futbolariarentzat. Azken bi urteetan igoeraren atarian gelditu ondotik, denboraldi hasieran helburu nagusia Preferente mailara igotzea zen, baina baja eta lesio larriak tarteko, denboraldiaren hasiera eskasa izan zen. Azkenean, lehen fasea igoera jokatzea ahalbidetzen zuten postuetatik puntu bakar batera gelditu ziren. Hortik aitzinera, Nafarroako Kopa jokatzea egokitu zitzairen, eta egokitu bakarrik ez, baita finala irabazi ere. Ekainaren 16an jokatu zuten finala Los Arcoseko Urantzia taldearen aurka, eta 3 eta 0 gailendu zen Baztango taldea. Amaiera borobila, erdipurdi hasitako denboraldiari. Jokalariak ere —argazkian— pozik garaipenarekin.

jatetxe, artista eta abarrek emandako produktuak, eta bertzetik, Baztandarren Biltzarrak berak jarritakoak. Gisa berean, sari zuzenik ez duten boleto guztiek uztailearen 22an eginen den zozketan parte hartuko dute. Kasu honetan, saria dirua izanen da (1.200 euro inguru). Antolakuntzak jakinarazi duenez, boletoak dagoeneko salgai daude

ohiko lekuetan, euro barten truke.

Bertzalde, kamisetak ere salgai paratu dituzte dagoeneko, helduentzat eta haurrentzat modelo ezberdinak. Salgai egonen dira, Elizondoko Txokoto Ostatuan, Erratzuko Zubipuntan eta Oronoz-Mugairiko Oskorri dendan. Horrez gain, larunbat goizetan Baztandarren Biltzarren Elizondoko

egoitza ere irekiko dute kamisetak saltzeko. Gisa berean, aurreko lehenbizikoz, txapak ere atera dituzte euroaren truke.

Azkenik, aipatu, heldu den astean, uztailearen 7an, itxiko dutela Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketaren erakusketa. Bitartean aurkeztutako lan guztiak Arizkunenean egonen dira ikusgai.



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Irarte karia
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853



Maderas GOMEN

Tel: 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerioak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

BAZTAN

Azpilkuetako Sanferminak uztailaren 6tik 9ra

Astelehenean, bestetako azken egunean, zikiro jatea egingen da

Ostirala 6

12:00etan txupina-zioa eta besten hasiera. **16:00etan** barretako kamaren betetzea eta prestaketa. **21:00etatik 21:30era** ezkil jotzea. **00:00etatik** aitzinera Baztan zopak herriko elkartean JOXE ANGELEk alaituta. **7:00etan** gosaria Uxoan.

Larunbata 7 Sanfermin

10:00etan dianak. **11:30ean** Meza Nagusia. **12:30ean** luntxa herriko elkartean. **16:30ean** mus txapelketa. **18:30ean** pilota partida final haundia. **20:00etatik 22:etara**



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ona izanen da aurtengo Sanfermin bestetan ere.

eta **1:00etatik 5:00etara** dantzaldia NAINA taldearekin. **5:00etatik aitzinera** musika gazteen ostatuan, ondoren

gosaria Uxoan.

Igandea 8 Haurren Eguna

10:00etan dianak. **11:00etan** plater-tiro lehiaketa. **14:00etan** gazteen bazkaria. Birtartean partxis txapel-

keta. **16:30ean** Eriz Ma-goaren erakustaldia. Ondotik txokolatada. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia FRANTZISKOREkin. **22:00etatik 00:00etara** afaria, gazteen 2. etxean.

Astelehena 9

8:00etan zikiroa egiteko sua piztea. **9:30ean** gosaria eta zikiro prestaketa. **14:00etan** zikiro jatea frontoian, JOXE ANGELEk alaituta. **17:00etan** kantaldia JAIONE OLAZABALEkin. **21:00etan** afaria herriko frontoian. **23:00etatik aitzinera** dantzaldia JOXE ANGELEkin.

URDAZUBI

38 herritarrek Arnedo inguruak bisitatu zituzten

Ekainaren 11n egindako bidaian, bodega bat bisitatu zuten

Aitor eta Fanni

Ugarana emakume elkarteak bestetan antolatzen duen bazkarian erabaki zuena betez, joan den astelehenean, ekainaren 11n, Arnedo-

ra bidaia egiteko aukera eman zien herritarrei. Herriko Etxearen proposamena ongi iruditu zitzaion Ugarana elkarteari, eta horretarako aukera zabaldu zuen. Azkenean, izena eman zu-



ARGAZKIA: AITOR ETA FANNIK UTZITAKOA

Arnedora joan ziren herritarrek.

ten 41 pertsonetatik 38 animatu ziren, eta bidaia eta bazkariaren truke 6 euro ordaindu be-

har izan zuten. Bertan bodega bat eta zapata-denda bat bisitatzeaz gain, herri hartako gizon

batek saltzen zituen etxeko produktuen aurkezpena ikusteko aukera ere izan zuten.

ZUGARRAMURDI

Hilabete eta gehiagoren buruan, ireki dituzte lezeak

Erreka bazterrean pareta txiki bat egin dute, eta bere gainean, kate bat paratu da

Margari eta Koro

Akelarre Elkartek antolatutako "Bide garbitze-eguna" arrakastatsua suertatu zen, hogeitabat lagun lanean aritu baitziren. Zikinkeria aunitz bildu zen, eta hasieran zikinkeria guztia pisatzea pentsatu bazen ere, hondarrean ez zen hala egin, zuzenean Cherchebruiteko zabotokira eraman baitzen.

10:30ak aldera hasi ziren, batzuk Errotako zelaitik Lezeraino ailegatzan den erreka bazterrean; eta bertze batzuk Sabideako Pottoka-bidetik hasi eta Narkoneko-bordaraino. On-

dotik, Urdazubi aldeko Pottoka-bidearen zati bat ere garbitu zuten. Hala ere, antolatzaileen ustez, oraindik lana gelditu da, eta behar bada irailean bertze aita-da bat egingen da.

Lezeak zabalik

Hilabete bat pasatua itxita egon ondotik (37 egun) ekainaren 9an ireki ziren lezeak. Moldaketan ondotik, itxura al daketa bat izan da leze haundian: erreka bazterrean pareta txiki bat egin da eta horren gainean kate bat jarri. Bertalde, zubi berriak lehenagokoak baino azkarragoak dira.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Bildutako zikinkeriaaren artean ikusgarriena traktore baten arruda bat izan zen (argazkian ageri dena).



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Errota zaharrean uraren indarrak garbiketa bitxia egin zuen: harri eta legarrak eraman zituen eta horrela ikusten ez zen pareta bat agerian gelditu zen eta baita ere makineriaren zati bat.

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
